



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**KAZETARITZA**

2021-2022 IKASTURTEA

**MEMORIA:**

# **Aralar, balioen eta interesen aniztasuna parke natural batean**

**EGILEA:** Aitor Garmendia Etxeberria

**ZUZENDARIA:** Jose Mari Pastor Gonzalez

2022ko maiatzaren 15a



“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".



## AURKIBIDEA

---

---

|  |    |
|--|----|
| <b>1. SARRERA</b> .....                        | 3  |
| <b>2. AZALPEN MEMORIA</b> .....                | 4  |
| 2.1 IDEIAREN JATORRIA .....                    | 4  |
| 2.2 LANAREN INTERESA .....                     | 4  |
| 2.3 TESTUINGURUA .....                         | 5  |
| <b>3. DOKUMENTAZIOA</b> .....                  | 6  |
| 3.1 ITURRI PERTSONALAK .....                   | 6  |
| 3.2 IKUS-ENTZUNEZKO ERREFERENTZIAK .....       | 7  |
| <b>4. METODOLOGIA ETA LAN KRONOGRAMA</b> ..... | 7  |
| 4.1 METODOLOGIA .....                          | 7  |
| 4.2 KRONOGRAMA .....                           | 8  |
| <b>5. BIBLIOGRAFIA</b> .....                   | 11 |
| <b>ERANSKINAK</b> .....                        | 13 |



## **1. SARRERA**

---

Gizartearen ehuneko handi bat hirien inguruan pilatuta bizi da. XIX. eta XX. mendeetako industrializazioek landa exodoa eragin zuten. Orduetik, lehen sektorea eta landa mundua husten joan dira eta, jada, jende gutxi bizi da nekazaritza edo abeltzaintzatik.

Azken urteetan, ordea, nolabaiteko mugimendua sortzen hasi da. Aurretik zetorren joera da, baina pandemiak sendotu egin du. Herritarrak ingurune naturalari balioa ematen hasi dira. Etxeratze agindua amaitzarekin batera, aukera zutenek mendira jo zuten. Mendiak hartu zuten tabernen tokia, baina neurriak lasaituz joan diren heinean, jendearen mendirako grina ere apaldu egin da.

Herritar askok pandemiari esker ezagutu dituzte etxe inguruko mendiak zein basoak. Zerbait aldatzear zela zirudien, baina ez da hala izan. Bada mendira joaten jarraitzen duenik ere; batzuk oinez, beste batzuk bizikletaz eta jende asko korrika. Baina, benetan, mendiarekiko interesa jartzen dutenak oso gutxi dira.

Goierri (Gipuzkoa) ere horixe gertatzen da. Bi parke naturalen artean dagoen eskualdea da. Goierriar gehienek baloratzen dute Aralar eta Aizkorri artean bizitzea. Errealitatean, ordea, herritarren gehiengoak ez dauka jakinminik goiko lur horietan zer dagoen jakiteko. Bakoitzak bere interesei begiratzen die; inor gutxi saiatzen da fokua aldendu eta Aralarrek biltzen dituen interes zein erabilpen anitzak ikusten. Horrexegatik, jakinmin hori sustatu eta ahal den neurrian Aralar Parke Naturala bere osotasunean ezagutzera emateko asmoarekin ekin nion *Aralar, balioen eta interesen aniztasuna parke natural batean* lanari.

Lan honetan bertako balio naturalak zein sozialak azaleratzen saiatu naiz, baita bertan bizi den gatazka testuinguruan jarri eta alde guztien iritziak azaleratzen ere. Parke naturalaren etorkizuna eta horren inguruan egin dizkidaden proposamenak ere landu ditut. Gainera, mendian gauzatzen diren aisialdiko jardueren inguruko zatidura bat erantsi diot. Baita Enirio-Aralar Mankomunitatearen ingurukoa ere, askorentzat Aralarko beste alde ezezagun bat. Amaitzeko, mendigunean urte gehien daramatzan artzaina ezagutzeko eta bere lana bertatik bertara bizitzeko aukera izan dut. Artzaintza baita Aralarko ardatzetako bat eta elkarrizketa formatuan txertatu dut hori.



## 2. AZALPEN MEMORIA

---

### 2.1 IDEIAREN JATORRIA

---

Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. Urteurrena ospatzeko idatzitako liburua topatu nuen etxean. Horrela sortu zitzaidan ideia. Goierritarra izanik, Aralar Parke Naturala leku berezia da niretzat. Eskualdeko txoko gehienetatik ikusten dira Txindokiko tontorra eta inguruko larreak. Halere, liburua irakurri ostean, mendigunera begira jarri eta ohartu nintzen, goierritarren gehiengoak bezala, ez nuela, benetan, Aralar ezagutzen. Bai, igo izan naiz Txindokiko gailurrera, zeharkatu ditut mendiko bizikletaz Aralarko bidezidorrak, eta Ordiziako azokan bertako artzainek egindako gazta ere dastatu izan dut. Baina jabetu nintzen Aralar hori guztia baino gehiago dela. Horregatik, Aralar, bere osotasunean, ezagutarazteko asmoarekin ekin nion *Aralar, balioen eta interesen aniztasuna parke natural batean* proiektuari.

### 2.2 LANAREN INTERESA

---

Medioetan agertu izan da Aralar, baina ikuspegi jakin bat landu izan dute. Alde horretatik, *Aralar, mundua leku den lurra* izan daiteke salbuespena. Gainerakoan, artzaintza, pisten eraikuntza, balio naturala edota mendizaletasuna bezalako gaiak jorratzera mugatu dira, batak bestearekin duen erlazioa aztertu gabe. Hori izan daiteke nire lanaren berritasuna. Izenburuak dioen moduan, parke naturalaren balio eta interes anitzak zein euren arteko loturak azaltzea du helburu.

Beste berezitasun bat bertatik bertara egindako behaketa da. Aralarrera igo eta bertan ikusi eta sentitutakoak idatziz islatzen saiatu naiz. Erreportajeak ikuspegi orokorra du nagusiki, baina gai bakoitza jorratzen den heinean fokua gerturatzen saiatu naiz istorio pertsonalak eta mendian ikusitakoak zein sentitutakoak tartekatuz. Elkarrizketak ere helburu horixe du, artzainak esandakoaz gain, bere bizimodua, izaera eta sentipenak transmititzea; finean, kutsu pertsonala ematea, lana humanizatzea.

Gizartearentzat interesgarria izan daitekeen zerbait egiteaz harago, ez dut gezurrik esango, nire interesekoa den gai bat jorratu nahi nuen. Naturarekin, landa munduarekin zein ingurumenarekin lotutako gaiak oso gustuko ditut eta argi neukan horrelako arlo baten ingurukoa izango zela nire Gradu Amaierako Lana. Askotan, antzeko lanak egiterakoan, urruneko gaitara jo ohi dugu: glaziarren urtzea, *la España Vacuada*, Afrikako tribuen bizimodua... Baina ez dakigu etxe ondoko mendietan glaziar bat egon zenik edota, pixkanaka, desagertzen ari den bizimodu bat mantentzen dela bertan. Horregatik, gertutasuna ardatz hartuta, etxe alboko mendigunearen ingurukoak lantzea erabaki nuen.



### 2.3 TESTUINGURUA

---

Aralarren, herritarrentzako aprobetxamendua nagusitu zen mende askotan zehar. Azken urteetan, baina, gizartea aldatu egin da eta mendiarekiko ikuspegia ere bai. Gaur egun, gizartearen zati txiki batek erabiltzen du mendia aprobetxamendurako eta gainerakoek aisialdirako, ikerketarako edo beste erabilpen batzuetarako probesten dute. 1994an izendatu zuten Aralarren Gipuzkoako zatia parke natural. Orduko dekretua izan da ingurunearen kudeaketarako tresna nagusia eta, bere helburuen artean, erabilpen ugari aipatzen ditu; baita guztien arteko elkarbizitza ahalbidetzeko asmoa ere (Eusko Jaurlaritza, 1994):

1. **Helburua:** “Parkearen eremuan dauden flora, fauna, gea, paisaia eta ekosistemak babestu, artatu eta, behar denean, lehengo egoerara itzularaztea”.
2. **Helburua:** “Natur balioen ezagutza eta gozamen erazkoa suspertzea, hezkuntza, kultura, jolas, turismo eta gizarte ekonomiarako interesgarriak diren iharduerako burutuz”.
3. **Helburua:** “Ikerketa zientifiko eta oinarrizko prozesu ekologikoen azterketa sustatzea”.
4. **Helburua:** “Aralarko gizarte eta ekonomia alderdiak sustatzea, natur baliabideen arazoizko erabileran oinarriturik. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza izaerakoak izanik, ingurune fisikoa eginkorki zaintzen eta babesten laguntzen duten ekoizpen iharduera tradizionalak hobe, berreskura eta ezar daitezen suspertzea”.

Gaur gaurkoz, ordea, interes eta erabilpen ezberdinen arteko elkarbizitza ataka estuan dago. Aralar aipatzen den unean sentipen zein ikuspegi kontrajarriak eta elkarrengandik oso aldenduak agertzen dira jendartean. Parke naturalean pista eraikitzekeo proiektuak sekulako gatazkak eragin ditu eskualdean eta ia herritar gehienak alde batean edo bestean posizionatu dira. Betidanik egon dira interes ezberdinen arteko gatazkak Aralarren, baina pisten auzia 2016 inguruan lehertu zen.

Orduan, zenbait pista eraiki zituzten baina, gero, udal hauteskunde berriak iritsi eta Enirio-Aralar Mankomunitateko ordezkariak erabat aldatu zen. Egun, mankomunitatearekin eta Foru Aldundiarekin posizioak asko aldendu dira eta abeltzainen ordezkariak harremanak hautsi dituzte mankomunitatearekin. Gatazka, beraz, konpontzetik urrun dago. Aurten, mankomunitateak antolatzen duen Larreen Irekiera ekitaldian, esaterako, abeltzainek ez dute parte hartu eta mankomunitatearen aurkako aldarrikapenak egin dituzte.



### **3. DOKUMENTAZIOA**

---

#### *3.1 ITURRI PERTSONALAK*

---

##### **Aizpuru, Iñaki**

Botanikaria, Aralar Parke Naturaleko zuzendari ohia, Enirio-Aralar Mankomunitateko kidea 35 urtez eta Itsasondoko alkatea. [Itsasondoko udaletxean, 2022-02-19]

##### **Altuna, Ixiar**

Artzaina. [Abaltzisketan, lan egiten duen dendan, 2022-04-13]

##### **Ariztimuño, Arantxa**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendien eta Ingurune Naturalaren zuzendari nagusia. [Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan, 2022-04-11]

##### **Artola, Uxue**

Abeltzaina. [Tolosan, 2022-04-13]

##### **Etxeberria, Mikel**

Aranzadi zientzia elkarteko biologoa eta Aralarko Larren Antolaketa Planaren egileetako bat. [Donostian, Aranzadiren egoitzan 2022-04-12]

##### **Fontenla, Ion**

*Aralar. Mundua leku den lurra* dokumentalaren zuzendarietako bat eta Felix Ugarte espeleologia elkarteko kidea. [Ataunen, 2022-03-18]

##### **Garmendia, Aitor**

*Ingurumena, landa garapena eta lehen sektorea* batzordeko kidea Zaldibiako Udalean eta Gailurrerantz Mendi Elkarteko batzordeko kidea. [Telefonoz, 2022-03-24]

##### **Huesa, Edurne**

Landarlan Ingurumen Elkarteko kidea. [Ordizian, 2022-03-18]

##### **Iraola, Xabier**

Enba Euskal Nekazarien Batasuneko kudeatzailea. [Tolosan, Enbaren egoitza nagusian, 2022-03-25]

##### **Irastorza, Jose Antonio**

Enirio-Aralar Mankomunitateko basozaina. [Ordizian, bere bulegoan, 2022-03-18]



## **Nazabal, Jeronimo**

Artzaina. [Kutixao txabolan, Enirio-Aralar Mankomunitateko lurretan, 2022-05-04]

## **Zabala, Fede**

Aralar Bizirik plataformako kidea eta Enirio-Aralar Mankomunitateko batzordeko kide ohia. [Itsasondon, 2022-04-04]

### *3.2 IKUS-ENTZUNEZKO ERREFERENTZIAK*

---

Lanerako bi ikus-entzunezko erreferentzia erabili ditut. Erreferentzia nagusia *Aralar, mundua leku den lurra* izan da. On Produkzioak eta Landarlan Ingurumen Elkarteak elkarlanean osatutako dokumentalak nire proiektuaren antzeko asmoak izan zituen. Aralar bere osotasunean erakutsi nahi zuten, bertan ikuspegi anitzak tartekatuz. Estetikari ere garrantzia handia eman zioten eta bertatik bertarako lan sakona egin zuten.

Bestetik, gai batean fokua jartzen duen lan bat ere erabili dut erreferentzia gisa. EITBren Ur Handitan saioak *Aralarko azken ausartak* kapitulua ekoitzi zuen 2019an. Bertan, artzaintza eta artzainen bizimodua lantzen dituzte sakonki. Gainera, nik elkarrizketatutako Jeronimo Nazabal da protagonistetako bat.

Bi erreferentzia horien arteko zerbait egin nahi izan dut nik. Dokumentalaren helburuak hartu ditut, hau da, ikuspegi anitzak ezagutarazteko asmoa izan dut; baina Ur Handitan saioko kapituluan bezala, gai batzuetara gerturatu eta lana humanizatu nahi izan dut.

## **4. METODOLOGIA ETA LAN KRONOGRAMA**

---

### *4.1 METODOLOGIA*

---

Printzipioz, erreportaje sakon bat egiteko asmoa nuen, baina interesgarriagoa iruditu zitzaidan hainbat generotako testuak batzea. Horregatik, erreportajea, elkarrizketa eta kronika egitea erabaki nuen. Halere, erreportajeko gaia uste baino sakonagoa zela ikusita, kronika alde batera uztea erabaki dut.

Horrelako lan bat egitean eman ohi dudana lehen urratsa liburutegiren batera jotzea da. Behin gaia zuzendariarekin adostuta, horixe izan zen aurreneko pausua. Gero, Interneten bilaketa orokorra egiten hasi nintzen eta, eskema xehetu ala, bilaketa horiek fintzen jardun nuen.

Argi neuzkan zenbait iturri. Esaterako, Iñaki Aizpuru eta Jose Antonio Irastorza erreportajerako ezinbestekoak zirela uste nuen. Izan ere, biek ala biek urte asko daramatzate mankomunitatearekin lanean. Bien bizitza Aralarri estuki lotuta joan da. Horregatik, horiek biak izan ziren egindako lehen elkarrizketak.





Printzipioz, ez neukan asmorik Aralarren dauden tirabiretan sakontzeko, baina konturatu nintzen ezinezkoa zela. Gatazka hor dago eta ezagutarazi egin behar da. Horregatik, parke naturalean dauden zenbait norgehiagoka lantzen saiatu naiz, ikuspegi guztiei hitza emanez. Halere, lanaren ardatza ez da gatazka izan. Izenburuak dioen moduan, Aralarren dauden interes eta erabilpen ezberdinak islatu nahi izan ditut. Horretarako, ardatz gisa, Aralar parke natural izendatu zuen dekretuko helburuak erabili ditut.

Hasieratik, argi eduki nuen beste iturri bat Jeronimo Nazabal zen. Aralarren urte gehien daramatzen artzaina da eta elkarrizketarako iturri egokiena zela iruditu zitzaidan. Berarekin harremanetan jarritakoan, baina, Aralarrera igo arte lanpetuta egoten zela eta elkarrizketa, behin igotakoan, egiteko proposatu zidan. Arazoa zen maiatzeko lehen asteetan zela igotzekoa, baina zehazki noiz ez zekien; eta garai horretarako lana amaitzen egon behar nuen. Beraz, badaezpada, Aralarren inguruko bi ekitalditara joan nintzen (Ordiziako Artzain Eguna eta Larreen Irekiera Ekitaldia). Horrela, artzainaren elkarrizketa berandutuz gero, kronikak egiteko aukera izango nukeen. Azkenean, Nazabal maiatzaren 5ean igo zen mendira eta elkarrizketa egin zein bere egunerokoa ezagutzeko aukera izan nuen.

Behaketa zuzenari, hau da, tokian tokikoari ere garrantzia handia eman nahi izan diot. Iturrien esanez eta informazio dokumentalaz gain, nire ustez, horrek egiten du lan bat berezi. Horregatik, apirilean eta maiatzean lau aldiz joan naiz Aralarrera. Aurretik ere zenbait ingurutan izana nintzen, baina irteera hauek leku berriak ezagutzeko balio izan didate. Euritan, egun eguzkitsu batean, astean zehar zein asteburuan joan naiz; horrela egunetik egunera inguruak dituen ezberdintasunak ikusi ahal izan ditut. Gainera, maiatzean, larreak ireki zituzten egunean bertan ere hurbildu nintzen; eta abereak igo berri zituzten abeltzainekin egoteko aukera izan nuen.

Tutoretza bilerei dagokienez, soilik hiru izan ditut. Behin gaia hautatu ostean, nire kontura hasi nintzen lanean eta nahiago izaten dut horrela aritu, norbait etengabe gainean eduki gabe. Nire zuzendariari hori eskertu beharrean nago, eman dizkidan konfiantza eta askatasuna. Hori bai, zalantzak izan ditudan bakoitzean berarekin harremanetan jarri eta, segituan, lagundu dit. Aurrez aurreko bilera gutxi izan ditugun arren, azken hilabeteetan, etengabeko komunikazioa izan dugu.

## 4.2 KRONOGRAMA

---

### **2021eko urria:**

Zuzendariarekin harremanetan jarri nintzen posta elektronikoz, bere lana esleitu zidatela esateko eta lehen tutoretza eguna adosteko.

### **2021eko azaroa:**

Azaroaren 17an, zuzendariarekin lehen tutoretza bilera izan nuen. Ordura arte, gaiak pentsatzen aritu nintzen. Aralarren inguruko zerbait egin nahi nuen hasiera-hasieratik eta bileran zuzendariak oniritzia zein aholkuak eman zizkidan.



### **2021eko abendua:**

Gaia nola eta nondik jorratu prestatzen hasi nintzen. Lehenik eta behin, herriko liburutegira joan eta Aralarren inguruan topatutako liburuak hartu nituen. Gainera, Interneten ere bilaketa sakona egin nuen: ikerketak, txostenak, artikulua... Horrela, lanaren lehen eskema osatu nuen (gero behin eta berriz aldatu dudana).

### **2022ko urtarrila:**

Behin lehen eskema egina neukala, gai bakoitzerako iturri aproposak aurkitzen hasi nintzen, baita beraiekin harremanetan jartzen ere. Bitartean, informazioa topatzen eta eskema zehazten aritu nintzen.

### **2022ko otsaila:**

Hilabete honetan, hasien erabakitako iturri guztiekin harremanetan jartzea lortu nuen eta elkarrizketa egunak finkatzen hasi ginen. Lehen elkarrizketa, hilaren 19an egin nuen Iñaki Aizpurrekin Itsasondoko udaletxean.

### **2022ko martxoa:**

Elkarrizketak egiten jarraitu nuen. Lana egiten ari nintzen bitartean, klaseak ere bagenuenez, astean zehar Bilbon egon nintzen eta horrek iturriekin batzeko egunak asko murrizten zizkidan. Horregatik, esaterako martxoaren 18an, hiru elkarrizketa izan nituen: Jose Antonio Irastorzarekin, Edurne Huesarekin eta Ion Fontenlarekin. Hauek, gainera, beste zenbait iturriren ideiak eman zizkidaten eta horiek lotzen ere jardun nuen.

Hilaren 24an, Aitor Garmendiarekin harremanetan jarri nintzen. Geratu ahal izateko denborarik ez zeukala eta, momentuan bertan egin genuen elkarrizketa telefono bidez. Bestetik, hurrengo egunean, Xabier Iraolarekin egon nintzen Enbaren egoitza nagusian, Tolosan.

Aurreko astean egin behar genuen arren, azkenean, hilaren 31n izan nuen bigarren bilera zuzendariarekin. Bertan, egindako lana zein lotuta nituen iturrien berri eman nion eta, besteak beste, lanaren egitura formalaz, entrega epeez edota luzeraz aritu ginen.

### **2022ko apirila:**

Aste Santua heltzerako iturri guztiekin hitz eginda egon nahi nuen, horrela jai egunak Aralarra joateko eta lana idazteko erabili nahi bainituen. Horregatik, elkarrizketa ugari izan nituen hilabetearen lehen erdian: apirilaren 2an, Fede Zabalarekin elkartu nintzen; hilaren 11n, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan Arantza Ariztimuñorekin egon nintzen; 12an Mikel Etxeberriarekin Aranzadin eta 13an Ixiar Altuna zein Uxue Artolarekin hitz egin nuen.



Era berean, hilaren 12an, Donostiako Ernest Lluch aretoan izan nintzen Arantza Aldezabalen *Iraunkortasuna, biodibertsitatea eta klima-larrialdia* hitzaldia entzuten. Gainera, tokian tokiko lanari ere ekin nion. Aralarrera joan nintzen hilaren 19an eta 22an. Bestetik, apirilaren 20an, Ordizian, Artzain Eguna ospatu zuten eta bertan ere izan nintzen. Gainera, Aste Santuan eta hilabetearen azken egunak erreportajea idazteko erabili nituen. Tutorearekin adostu moduan, apirila amaitzerako erreportajea bidali nion.

### **2022ko maiatza:**

Behin erreportajea zuzendariari bidalita, elkarrizketa prestatzeari ekin nion. Hilaren 1ean, Aralarko Larreen Irekiera ekitaldian izan nintzen, Larraitzen. Gainera, egun berean, mendira joan nintzen, orduan igo baitziren lehen artzainak.

Maiatzaren 5ean elkartu nintzen artzainarekin, orduan igo behar baitzen hurren sei hilabeteak igaroko zituen txabolara. Bere lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izan nuen. Artzainarekin eta artaldearekin batera igo nintzen txabolara eta bertan igaro nuen eguna bere egunerokoa ezagutzen. Artzaina ardiak jezten hasi zenean, iluntzean, itzuli nintzen herrira.

Hurrengo egunak, elkarrizketa idazten eta erreportajeaz zuzenketak egin zein txukuntzen igaro nituen. Hilaren 8an bidali nion elkarrizketa tutoreari eta, 10ean, tutoretza bilera izan genuen. Aurreko asteetan, posta elektronikoko bidez egon ginen harremanetan; beraz, galdera askorik ez neukan. Halere, azken ukituen inguruko zalantzak argitu nahi nituen.

Ordutik aurrera, lanari azken ukituak ematen hasi nintzen. Testua maketatzea erabaki dut, mendira joan nintzenetan argazki ugari atera nituenez, lana aberastu dezaketela uste baitut. Horregatik, lana entregatu aurreko egunetan maketazioarekin aritu naiz. Bi orritara maketatu dut, aldizkari bat izango balitz bezala. Bestetik, memoriarekin hasita nengoan arren, azken egun horiek erabili ditut guztiz osatzeko.



## 5. BIBLIOGRAFIA

---

- Agirre, Igor (2017). “Aralar oreka bila”. *Argia*, 2.542, 22-26.
- Aizpurua, Jon eta Aizpurua, Jexux (1999). *Joxemigel Barandiaran*. Donostia: Elkarlanean.
- Aldezabal, Arantza (2022). “Iraunkortasuna, biodibertsitatea eta klima-larrialdia”. *Elhuyarrek eta Donostia Kulturak antolatutako hitzaldia*. Emakume Zientzialarien Argitan zikloaren barnean. Donostia, apirilaren 12a.
- Altuna, Jesus (1993) Euskal prehistoriaren eta etnografiaren ikuspegiak. Bilbo: Gero-Ediciones Mensajero.
- Aragón, Alvaro (2001). “Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar”. *Uztaro*, 38, 19-32.
- Aranzadi Zientzia Elkarte (1982). *Estudio de Ordenación de Enirio-Aralar*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Aranzadi Zientzia Elkarte (2017). “Aranzadi advierte otra vez del impacto ambiental irreversible que tendría construir pistas en Aralar”. *Aranzadi.eus*. Urtarrilaren 13a, eskuragarri hemen: <http://www.aranzadi.eus/actualidad/aranzadi-advierte-otra-vez-del-impacto-ambiental-irreversible-que-tendria-construir-pistas-en-aralar> [Kontsulta eguna: 2022-04-20]
- Auzmendi, Garazi eta beste (2018). *Aralar. Mundua leku den lurra* [Dokumentala]. On Produzioak eta Landarlan.
- Barandiaran, Jose Migel (1984). Diccionario de mitología vasca. Donostia: Txertoa.
- EITB (2019). *Ur handitan: Aralarko azken ausartak*. Eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/saioak/ur-handitan/aralarko-azken-ausartak/oso/6589/165317/> [Kontsulta eguna: 2022-04-15]
- Etxeberria, Francisco eta beste (1980). “Estudio de zonas kársticas de Guipúzcoa: el Urganiano Sur de la Sierra de Aralar”. *Munibe*, 32 (3-4): 207-256.
- Eusko Jaurlaritz, Nekazaritza eta Arrantza Saila (1994). “168/1994 Dekretua”. *EHAA*, 123. Gasteiz, ekainaren 29a.
- Eusko Legebiltzarra (2002). “Comparecencia de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, a petición de la Comisión, de conformidad con la solicitud formulada por D. Rafael Uribarren Axpe, del Grupo Parlamentario Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, a fin de que exponga el contenido de su estudio y propuestas para mejorar la estabilidad y el futuro del Parque Natural de Aralar”. *Lurralde Antolamendu, Garraio eta Ingurumen Batzordearen bilkuren aldizkaria*. Ekainaren 11.



García, Oihana eta beste (2017). “La gobernanza de sistemas socioecológicos comunales en riesgo: el caso de la Mancomunidad de Enirio-Aralar (Gipuzkoa, País Vasco)”. *Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI. Menderako. Elikadura21 Nazioarteko Hizketaldia*, 2017ko apirilaren 24,25 eta 26. Gasteiz. ICAS eta Etxalde (42).

Gipuzkoako Foru Aldundia (2005). “Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Aralar”. Landa Ingurumenaren Garapenerako Departamentua.

Gipuzkoako Foru Aldundia (2020). “Aralarko Parke Naturaleko 2020ko Kudeaketa Memoria”. Ekonomia Sustapenerako, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua.

Karrera, Iker eta beste (1998). “Estudio socio-económico del sector ovino en la sierra de Aralar”. *Producción Ovina y Caprina*, XXIII, 237-242.

Leizaola, Fermin (1991). “El pastoreo tradicional en Gipuzkoa. Notas para su estudio”. *Narria*, 55-56, 16-26.

Moraza, Alfredo (2010). *600 Aniversario de la Mancomunidad de Enirio -Aralar (1409 - 2009)*. Ordizia: Enirio Aralarko Mankomunitatea.

Toner, Jon (2021). “Mendizaletasuna. Moda berrien erritmoan”. *Larrun*, 263.



## ERANSKINAK

---

Egindako elkarrizketak audio formatuan entregatu ditut. Iturri pertsonal bakoitza “Abizena.Izena.mp3” gisa izendatuta dago, ordena alfabetikoan.

Aizpuru.Iñaki.mp3

Altuna.Ixiar.mp3

Ariztimuño.Arantxa.mp3

Artola.Uxue.mp3

Etxeberria.Mikel.mp3

Fontenla.Ion.mp3

Huesa.Edurne.mp3

Iraola.Xabier.mp3

Irastorza.JoseAntonio.mp3

Zabala.Fede.mp

\*Aitor Garmendia [*Ingurumena, landa garapena eta lehen sektorea* batzordeko kidea Zaldibiako Udalean eta Gailurrerantz Mendi Elkarteko batzordeko kidea] telefonoz elkarrizketatu nuen eta ez daukat grabaketarik. Halere, edozein arazo izanez gero berarekin harremanetan jartzeko telefonoa honakoa da: 653730035